



Korrika,
martxoaren
21ean Lemoan

2.orr

beharsarea.net,
lanpostuen
eskaintza sarean

3.orr

Osoko Bilkurak
kanporatzeen
aurrean
protokoloa
onartu du

4-5.orr

Martxoak 8,
emakumeak gure
herrian

6.orr

Eficiencia /
Ahorro de 24.400
euros con las
nuevas luminarias

8.orr



Etxekanporaketak **EZ**



korrika 2013



Denok kalera martxoaren 21ean

Eman euskara elkarrri lelopean dator Korrika 18. Lemoan gure esku eta oinei esker euskararen lekukoari lagunduko diogu Baionaraino heltzen. **Martxoaren 21ean** izango dugu horretarako aukera, Lemoara eguerdiko ordu bata aldera sartuko baita Igorretik. Korrikari ondo etorria egiteko Lemoan hainbat eragilek Korrika Kulturalerako ekintzak antolatu dituzte. Horrela, au-

rreko aste eta egunetan, baita martxoaren 21ean ere, hainbat egitasmo egongo dira eskolan, herrian zein eskualdean. Horri esker, Korrika giroa herriratu nahi da, euskalakariek euskalakarizateko guneak zabalduz eta bultzatuz. Euskarak euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza izan behar duela aldarrikatuko du, beraz. Izan ere, euskara da euskalakariontzat elkarrri berba egi-

teko, elkar entzuteko eta elkar ulertzeko tresna.

Euskara elkarrri emateko euskara jakitea ezinbesteko da. Horregatik, Korrika 18ko omenduak euskara ikasleak dira, beraien ahalegin eta adoreari esker ere euskarak aurrera dirauelako.

Izan euskalakari!
Animatu, parte hartu eta eman euskara elkarrri!

IKASTAROAK

Urtearen hasierarekin batera, Kultura Zerbitzutik ikastaro bi jarri dira martxan, **PHOTOSHOP** eta **SUKALDARITZA SAKONTZEN** ikastaroak. Martxoaren hasieran hirugarren bat hasiko da, **ZORU**

PELBIKOA INDARTZEA helburu izango duena.

Uda partean 2013-2014 ikasturterako ikastaroak programatuko dira, eta irailan Udaleko web orrian izango duzue informazioa eskuragarri.



lemoa.net

Udaletxea / Ayuntamiento

94 631 30 05
94 631 34 59

Bake epaitegia / Juzgado de paz

94 631 25 52

Postetxea / Correos

94 631 40 64

J.B. Eguzkitza Meabe Eskola

94 631 32 28

Liburutegia-Ludoteka / Biblioteca-Ludoteca

94 631 20 64

liburutegialemoa@euskalnet.net

Osasun Kontsultegia /

Consultorio Médico

94 631 31 16

Botika / Farmacia

94 631 30 18

Giza-Zerbitzuak / Servicios Sociales

94 631 17 17

Jubilatuena etxea / Club de

Jubilados

94 631 41 73

Udal Kiroldegia /

Polideportivo Municipal

94 631 42 97

enplegua

Lanpostuen eskaintza, klik baten

Udalak herrian dauden lanpostuen eskaintza eta eskaria areagotu eta zabaltzeko asmoz beharsarea.net webgunea abian jarri du.

Lemoako Udalak, beste hainbat udalerrri eta mankomunitaterekin batera, beharsarea.net webgunea abian jarri du, Lemoan dauden lanpostuen eskaintza eta eskaria gure artean areagotu eta zabaltzeko asmoz.

Web-orrian Euskal Herriko mapa ageri da eta Bizkaia nabarmenduta dago bertan. Bizkaiaren gainean klikatzen badugu, parte hartzen duten herri eta mankomunitateen izenak ikusi ahal izango ditugu, eta horrela, Lemoa hautatu. Horretaz gain, orriaren eskuinaldean argitaratu diren azken eskaintza eta eskaeren zerrenda dago ikusgai. Lan mota guztiak bideratzeko tresna da Beharsarea, eta horiek kategoria desberdinetan sailkatu dira. Ildo horretan, lan partzialak zein lan profesionalak eskaini



eta eskatu daitezke zerbitzu honen bidez. Hori dela eta, Lemoako Udaletik <http://beharsarea.net/Lemoa/> webgunean sartzeko gonbitea egin gura dizugu, zuen curriculumak edota lan eskaintzak sartzeko. Zerbitzua euskaraz emango da, baina honetarako zailtasunik ikusiz gero, Udaletik laguntza eskainiko da.



elkartasuna

Mexiko eta Sahara: kooperazio proiekturako dirulaguntzak

Udalak azken urteetan kooperazio proiektu ezberdinak diruz lagundu ditu. Dirulaguntza arautzeko asmoarekin 2012an udal ordenantza bat onartu zen. Ordenantza horren testua eskuragarri dago www.lemoa.net helbidean, ordenantza atalean.

lazko aurrekontuetan 5.000 euroko dirupartida bat onartu zen kooperazio proiektu horiek aurrera eramateko. Hiru eskaera ezberdin aurkeztu ziren eta horietatik bi aukeratuak izan dira ordenantzaren



baldintzen arabera (proiektu bakoitzak 2.500 euroekin). Basque Know How Fundazioaren bitartez, Mexikoko Prochavos egitasmoa onuraduna gertatu da. Elkarrekin honen egoera larrian, kale gorrian, drogamenpekotasunean, etabar ... bizi diren ume eta gazteei aukera berriak ematen lan egiten du.

Bestalde, Menditik Desertura elkarrekin Saharan zerbitzu mediku ginekologiko ibiltari bat martxan jartzen erabiliko du jasotako dirulaguntza. Proiektu hauei buruz informazio gehiago nahi izanez gero, udaletxearekin harremanetan jarri.

memoria historikoa

Ekarpinak jasotzen

Lemoako Memoria Historikoa berreskuratzeko proiektuaren barne lehenengo bi batzordeak ospatu dira. Batzordea ostegunetan, 19:30etan, jubilatuen ganeko aretoan, batuko da. Bestalde, Gazteria zerbitzutik auzolanderi batzuk ere proposatu dira. Eusko Jaurlaritzak bere onospena eman dio ekimenari.





Ekintzaren unea

Osoko Bilkurak etxe kanporatzeen aurrean protokoloa onartu du

Neurri zehatzak biltzen dituen protokoloa da, eta bi helburu ditu, batetik egoera larri honen aurrean daudenei laguntza praktikoa ematea eta, era berean, etxegabetzeen sistema bidegabeari aurre egitea.

Lehenik eta behin, etxegabetze denak denbora mugagabeen bertan behera uzteko exijitzen du Lemoako Ohiko Bilkurak. Herritarren eskubideen defentsa bermatzeko legediaren aldaketa exijitzen dugu. Era berean, herritarren etxebizitza eskubidea babesten du, gai honetan bankuek eta

Espainiako gobernuak duten jarrera ozen salatuz.

→ Horrela bada, ezinbestekoa deritzogu, egoera honen aurrean, instituzioen eta etxegabetzeen aurka ari diren eragileen arteko elkarlana. Horretarako udala eta eragileekin harreman iraunkorra izango da. Momentuz, herrian ez dago gai hau lantzen duen eragile konkreturik. Hori aztertu eta "elkarlan egitasmoan" parte hartuko duten eragileekin lan egin dezakegu honen inguruan.

Beharrezkoa ikusten den kasuetan, etxegabetzeen gaiaren lanketarako, udal batzorde berezi bat antolatzeko aukera irekia geratzen da.

→ Udala, herrian ohiko etxebizitzaren etxegabetzeak jasan dituzten edo jasateko arriskuan dauden herritarrei irekita dago. Egoera hori nozitu duten edo arriskua duten herritarren informazioa jasotzea ezinbesteko du udalak, ekinbideak martxan jarri ahal izateko.

→ Horretaz arduratuko den pertsona bat izendatuko da: alkatea

→ Kaltetuen eskura, telefono zenbaki bat eta e-mail bat jarriko dira. Kasu honetan, egoeren larritasuna ikusita, jarraian alkatearen kontaktua jartzea proposatzen dugu. Horrela, harremana zuzena izan daiteke.

→ Hala eskatzen duten kaltetuek, diskrezio osoa izango dute Udalaren aldetik.

→ Udalak, herritarren aurkako etxegabetze prozedura martxan duen bankuarekin harreman bidea irekiko du, honako helburuekin:

→ **El Pleno ha aprobado un Protocolo de medidas para hacer frente a los desahucios**

- Etxegabetze prozedura denbora mugagabeen bertan behera uzteko exijitzea.
- Kaltetuaren aldetik dagoen proposamen oro bankuari bideratzea.
- Udalak, Kutxabank-eko partaide den heinean, bereziki exijitzen dio entitate honi, etxegabetzeak bertan behera utzi ditzan denbora mugagabeen. Epaitegietan martxan dauden prozedurak ere bertan behera uzteko beharrezko diren urratsak eman ditzan exijitzen dio Udalak Kutxabank-i. Kutxabank-en barne egituran dauden aukera guztietatik bideratuko dio Udalak, arestian aipatutako exijentzia.
- Udalak, etxegabetzeen gaiarekin duten jarreraren arabera kreditu entitateekin duen harreman instituzionala, ekonomikoa eta elkarlana berrikusi egingo ditu: Etxegabetzeak gauzatzen dituzten eta egiten ez dituzten entitate finantzieroen arteko sailkapena egingo du Udalak eta etxegabetzeak egiten dituzten banketxe horiekin harremanak etengo ditu.
- Udalak, herritarren jakinaren gainean utziko du etxegabetzeen gaiaren aurrean Banku, Kutxa edo Kooperatiba bakoitzak duen jarrera.
- Lemoako Udalak ez du etxegabetze prozedurarik bultzatuko eta beraietan parte hartuko. Era berean, gai hauetan, epaitegietatik bideratutako prozedurak gauzatzeari uko egiten dieten udal langileak (udaltzainak kasu gehienetan), babestu egingo ditu udalak.
- Udalak, ohiko etxebizitzaren etxegabetzea nozitu duten herritarrei, etxebizitza eskubidea onartua izan dezaten, laguntza juridikoa eta lehen arretari informazioa eskainiko die.
- Ohiko etxebizitzarik gabe geratu diren herritarrei premiazko irtenbidea emate aldera eta alokairu soziala erreferentzia nagusitzat harturik, Udalak, etxebizitzaren eskumena duten erkidego eta foru entitate publikoekin (Etxebide eta



El protocolo, al igual que todos los documentos del Ayuntamiento, está abierto a sugerencias y aportaciones. Consúltalo en castellano en la web lemoa.net

Vinsa) elkarlana bultzatu du.

- Hainbat etxebizitza hutsik dituzten banku eta higiezin enpresei ardura exijituko die.
- Herrian etxegabetze prozedura bat gauzatzen den bakoitzean, egunean bertan, Udalak herri eragileekin batera, etxebizitza eskubidearen alde eta etxegabetzeen aurka, kontzentrazioa egingo da herriko plazan.

INFORMAZIO GEHIAGO

- Telefonoa: 94 631 30 05
- Emaila: alkatea@lemoa.net

Aprobados los presupuestos de 2013

El Pleno del Ayuntamiento de Lemoa ha aprobado los presupuestos para 2013, con los votos a favor de Bildu, la abstención del PNV y el voto en contra del PSE.

LAS CIFRAS:

-3,44 millones de euros de presupuesto, un 4% más que el pasado año.
-476.900 euros en inversiones.



Berdintasuna

Emakumeak gure herrian

Martxoak 8ko egitaraua, Lemoan momentu hauetan egiten ari garen lanketa biren inguruan antolatu dugu. Alde batetik, Lemoan memoria historikoaren inguruko lanketa sakon bat egingo dela aprobetxaturik, emakumeen bizimoduak eta udalerrinari egindako ekarpenak berreskuratu, horiek azaleratu eta dagozkien balioa emateko hainbat ekintza antolatu ditugu. Izan ere, historian zehar emakumeek izandako partehartzea desbalorizatu eta ezkatutua izan da eta ondorioz, ezezagutza handia dago. Lanketa hau egiteko ekintza desberdinak antolatu ditugu. Martxoak 1ean Lemoako Abesbatzak antolatutako Kantupote ekimenarekin batera, emakumeen historia abestien bitartez hobeto ezagutzeko saiakera egingo dugu. Martxoak 7an "Emakumeen memoria historikoa"-ren inguruko hitzaldia izango dugu Aintzane Rincón, historialariaren eskutik eta ondoren izenburu bereko lehiaketaren aurkezpena egingo dugu. Bestalde, irailan hasitako "Genero parekidetasunerako diagnostiko partehartzailea"-rekin amaitzen dugu Martxoan. Prozesua jai txiki batekin amaituko dugu. Bertan, prozesu osoan

zehar parte-hartu duten jende desberdinarekin osotutako bideoaren emanaldia burutuko da eta denon emakumeen eskubideen zein genero parekidetasunaren aldeko murala osotuko dugu denon aldarrikapen eta mezuekin. Birtartean, umeei zuzendutako tailerrak izango ditugu. Ondoren, luntx txikitxo bat egongo da.



EGITARAUA

Abesbatzakoek antolatutako Kantupoteoa

- Martxoak 1
- Elizondotik abiatuta. 20:00

Hitzaldia: "Emakumeen memoria historikoa lantzen". Hizlaria:

- Aintzane Rincón historialaria
- Lehiaketaren aurkezpena: "Gure bizitzatako emakumeak"
- Martxoak 7
- Jubilatuen gaineko aretoa. 19:00

Genero parekidetasunerako diagnostikoaren amaiera jaialdia:

1. Prozesuaren grabaketaren aurkezpena
 2. Berdintasunaren aldeko mural kolektiboa
 3. Luntxa
 4. Dinamizazio tailerra Orue Eskolaren eskutik
- Martxoak 9
 - Kulturgunea. 12:00



Guía de recursos contra la violencia hacia las mujeres

Arratiako Udalen Mankomunitatea ha editado una hoja informativa de recursos para remitirla a todos los hogares del valle, con el objetivo de informar sobre los servicios existentes para luchar contra la violencia. El objeto de la publicación es facilitar información, sobre todo, acerca de los recursos telefónicos a los que dirigirse en caso de ser víctima o conocer a alguna mujer que lo sea. En muchas ocasiones no resulta nada fácil saber cuál es el paso que hay que dar, con quién hay que hablar, además de que influyen factores como el miedo, la vergüenza, por miedo al qué dirán, etc. De hecho, en la hoja informativa aparecen tres teléfonos; uno es para utilizarlo en casos de emergencia, el 112, y los otros dos también son muy importantes: por un lado, el número 900 840 111, operativo las 24 horas, gratuito y confidencial, para escuchar e informar a las mujeres, y el otro, el teléfono de la propia Mancomunidad (94 631 17 17).

Irudietan



Inauteriak



Santa Ageda



II. NARRAZIO LEHIAKETA
OINARRIAK: LEMOAN

PARTAIDEAK

18 urtetik gorako egileek har dezakete parte.

HIZKUNTZA Euskara

AURKEZPENA

Partaide bakoitzak narrazio bakarra aurkeztu ahal izango du, eta gehieneko luzera sei foliokoa izango da, alde bakarretik idatzita. Lanak, saritu gabekoak, jatorrizkoak eta argitaratu gabekoak izan beharko dira. Gaia librea izango da.

Idazlanek izenburua edo izengoitia soilik eduki beharko dute, egilea identifikatu dezakeen xehetasunik gabe. Lanarekin batera, eta kartazal itxian, egilearen datuak sartuko dira (izena, abizenak, helbidea, adina, telefono zenbakia eta, posiblea bada, posta elektronikoa). Kartazalaren kanpoaldean idazlanaren izenburua edo izengoitia jarriko da.

Oharra: aurkezteko baldintzok betetzen ez dituzten lanak atzera botako dira.

AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

Lanak Lemoako Udaletxean aurkeztu beharko dira, edo ondorengo helbide elektronikora bidali: kultura@lemoa.net, 2013ko apirilaren 23a baino lehen.

EPAIMAHAIJA Udalak aukeratutako literaturaren adituak.

SARI BANAKETA Sariak maiatzean egingo den aste kulturalean banatuko dira.

SARIAK Honako sariak emango dira:

- 1. saria: 250 € eta diploma
- 2. saria: 150 € eta diploma
- 3. saria: 100 € eta diploma

Lemoako bertako 1. saria: 100 € eta diploma

Oharrak:

-Saridunen artean Lemoako baten bat baldin badago, herriko 1. saria bertoko 2. narrazio onenak eramango du.

-Sariak eman gabe gera daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen bada - Epaimahaiaren erabakia nahitaez onartu beharko da.

Saritutako lanak web orrian argitaratuko dira.



LEMOAKO UDALA
KULTURA
SAILA

Zuhaitz Eguna,
martxoak 23, zapatua

→ Ganzabal Mendi Taldeak, J.B. Eguzkitza Meabe Ikastetxeak, eta Lemoako Udalak antolatuta, ZUHAITZ EGUNA San Antolinen.

→ Informazio gehiago:
www.lemoa.net



Luz eficiente

La renovación del alumbrado municipal de Lemoa (con luminarias LED) permitirá un ahorro en la potencia consumida del 77% y de 24.437 euros al año. Muchos vecinos y vecinas han notado que la iluminación es diferente al anterior sistema. Se trata, simplemente, de acostumbrarse a una tecnología que permite focalizar más la luz y evitar "pérdidas lumínicas" a otras áreas.

Desde que en 2008 se aprobara el Reglamento de Eficiencia Energética, el alumbrado público está viviendo una gran transformación hacia la optimización del consumo energético, con el fin de lograr ahorros energéticos y económicos, sin disminuir la calidad del servicio. Con este propósito, se decidió sustituir las luminarias de vapor de sodio alta presión instaladas en el municipio por luminarias LED.

Las anteriores lanzaban su flujo lumínico en todas direcciones y necesitaban de reflectores para dirigirlo hacia la carretera, que es el área que se debe de iluminar. Con este direccionamiento del flujo se consigue lanzar parte del haz hacia el punto dirigido, pero otra gran parte apunta a zonas que no son necesarias iluminar como jardines, fachadas, el cielo, etc. Por el contrario, las luminarias de tecnología LED, ecológica y mucho más barata, tienen la particularidad de que lanzan el flujo directamente a la carretera, sin pérdida de luz hacia otras zonas.

La primera fase de este proyecto, realizado con la subvención de la Diputación Foral de Vizcaya, comenzó en diciembre con la sustitución de 280 luminarias. Los ahorros logrados han sido espectaculares. Próximamente se instalarán ocho nuevos puntos de luz en las zonas que no tienen una iluminación adecuada, como el parking Atxeta, la Plaza San Ignacio y la zona de la autoescuela, entre otras ubicaciones.

